

Konfiantzarako hezi

9. saioa

Pertsona guztiok sentitzen dugu beldur eta segurtasunik eza bizitzako hainbat arrazoi edo inguruabarren eraginez. Nor ez da beldur izan edo zalantzati sentitu? Beldurrak mugatu egiten gaitu, zoriontsu bizitzea galarazten digu. Umeak beldur izaten dira eta baita gurasoak ere, batik bat beraien seme eta alabak seguru haztea nahi dutelako. Gaurko saioan ikusiko dugunez, garrantzitsua da besteengan eta Jainkoarengan konfiantza izatea.

SAIOAREN HELBURUAK

Helduak:

- Norberak esperimentatzen dituen beldur eta zalantzez jabetu
- Familia harremanetan konfiantzak duen garrantzian sakondu eta konfiantzaren esperientzia bizi
- Jesusek Jainkoaren seme eta alaba sentitzearen esperientziatik konfiantzaz bizitzeko egiten digun deia antzeman

Haurrak:

- Baldintzarik gabe maite gaituztela sentitu
- Jainko Aitak maite gaituela aitortu

GARAPENA

Aurkezpena. Denok gaudela, bost minutu hartuko ditugu gaur bilerara nor etorri den eta nola etorri garen ikusteko.

Konfiantza ezinbesteko esperientzia da sano eta zorioneko bizitzeko, besteekin eta nork bere buruarekin harreman onak izateko eta kristau izan eta maitasunaren agindua betetzeko. Konfiantza ona dugula diogunean, geure buruaren benetako irudia dugula adierazten dugu: bere argilunekin, sasi apaltasun edo umiltasunik gabe eta, aldi berean, harrokeria eta handikeriarik gabe.

Elkarrekin egingo ditugu konfiantzaren esperientzian sakontzen lagunduko diguten dinamikak. Dinamika bakoitzaren ostean, ezinbestekoa da elkarrizketan jardutea, iritziak ematea, nola sentitu garen adieraztea, bizi izandakoaren senean sakontzeko. Hiru proposatzen dira, baina taldearen eta dugun astiaren arabera, bi dinamika aukera ditzakegu.

1. dinamika: Harresia

Helburua: Norbere buru eta taldearenganako konfiantza suspertu.

Zehazpenak: Partaideak harresi edo beldurra eman dezakeen oztopoaren aurrean koka daitezela; lasterka joango dira harantz begiak estalirik dituztela.

Garapena: Partaideak oztopotik pare bat metrotara kokatuko dira, ilara osatuz eta elkarrengandik apur bat bereizita, oztopoak hartzen duen eremua betez. Boluntarioa oztopoaren aurrean kokatuta dagoen taldetik hamar metro ingurura joango da. Begiak estaliko zaizkio eta arineketan joango da oztoporantz. Taldeak pertsona hori harrapatu egin behar du oztopoarekin talka egin aurretik.

Ebaluazioa: Harrapatzeaz batera bizi izan duen esperientzia konta dezala: nola sentitu den, ibili behar izan duen tarte, lurzorua, taldea...

Bigarren dinamikari ekin aurretik, "belatzaren hegaldia" ipuina irakurri eta komentatuko dugu taldean.

IPUINA: Belatzaren hegaldia¹

Errege bati bi belatz txiki oparitu zizkieten eta ehiza-hegaztiez arduratzen zenaren esku utzi zituen, treba zituan. Hilabete batzuen buruan, zera jakinarazi zion erregeari: belatzetako bat primeran zegoela baina bigarrenari zerbait gertatzen zitzaiola, iritsi zen egunean utzi zuen adarrean zegoelako mugitu ere egin gabe.

Erregeak petrikilo eta albatariak ekarri zituen belatzea ikus zezaten, baina inork ez zion hegan eginarazi.

Orduan, erregeak saria eskaini zuen belatzeari hegan eginaraziko zion pertsonarentzat.

Biharamunean, belatzea hegan ikusi zuen lorategietan. Erregeak esan zien zerbitzariei:

- *Etor dadila mirariaren egilea.*

Han aurkeztu zen baserritar apal bat. Erregeak galdetu zion:

- *Nola lortu duzu belatzeak hegan egitea? Magoa ote zara?*

Ikaraturik, zera esan zion baserritarrek erregeari:

- *Erraza izan zen, Jauna. Adarra moztu nuen eta belatza hegan egiten hasi zen. Hegoak zituela konturatu eta hegaldatu egin zen.*

Ipuinaren inguruan elkarriketan jarduteko, familia bakoitzak egin dezala bere beldurren zerrenda: "kolpea hartuko dut", "ezingo diot aurre egin", "eta... gaizki ateratzen bazait?"... Begiratu zeure buruari, belatza txikiaren antzera, adarrari helduta...

¹ ALVEAR, J.M., *Emociones. Escucho mi corazón*, PPC, Madril 2007, 28-29 or.

2. dinamika: Xuxurlatuz deitu

Helburua:

- Konfiantza landu
- Besteak ezagutzen duela senti dezala lagun bakoitzak

Zehazpenak: Bikotekide batek besteari deituko dio. Bigarrena, begiak itxita, entzuten duenaz orientatuko da.

Garapena: Familia bakoitzean bikoteak egin eta familia bakoitzeko kide batez osaturiko bi taldetan banatu. Talde bat gelako alde batean kokatuko da, taldekideak eserita daudela, eta bestea kontrako aldean, hormari begira eta begiak itxita. Jokoa bi unetan garatuko da.

- Lehenengoa: eserita dauden pertsonak, banan-banan, beren bikotekidearen izena xuxurlatuko dute (ondoren, eserita dauden pertsonak lekuz aldatuko dira).
- Bigarrena: eserita dauden pertsonak izen guztiak batera xuxurlatuko dituzte eta begiak estalirik dituztenak bikotekidearen bila aterako dira. Konfiantza dute pertsona horren deian eta harenganaino helduko dira. Bakoitzak bere izenaren soinuz gozatzeko unea da.

Ondoren, taldeek rolez aldatuko dute.

3. dinamika: Lorezaina

Helburua: Norbere buruarenganako konfiantza garatu

Zehazpenak: Begiak estalirik, gauza bat jaso behar da ibilbide baten barruan.

Garapena: Jokalariak bi ilaratan ipiniko dira aurrez aurre, bi ilaran artean bi metro inguruko tarte utziz, etorbide bateko zuhaitzak balira bezala. Lorezainarena egingo duen lehenengo pertsona etorbideko (pasilloko) mutur batean ipiniko da; begiak estalita dituela, etorbideko beste muturrean dagoen pertzaren (edo beste gauzaren baten) bila aterako da. Ibilbidea zuhaitzak ukitu gabe egin behar du. Bata besteari atzetik, lorezain berriak aterako dira, talde osoak paper hori bete arte. Jardueraren garapena errazteko, zuhaitzek putz egin diezaioke lorezainari hau zuhaitzetara larregi hurbiltzen denean.

Ebaluazioa:

- Nola sentitu dira?
- Nola sentitu dituzte pertsonak?
- Eremua?
- Zer sentitu dute norbaitek putz egin dienean?
- Zertan pentsatu dute bidean zihozela?

OTOITZA: Dinamikak eta hauei buruzko hausnarketak amaiturik, otoitzaldi txiki bat egingo dugu denok batera, Mateo 14, 30-31 pasartean oinarriturik.

Une batez otoitz egiteko prestatuko dugu geure burua, ingurua ere girotuz. Lasaitu egingo gara, begiak itxi eta Ebanjelioko pasartea entzungo dugu.

Testua irakurri eta bertan "murgilduko gara"; imajina dezagun gutariko bakoitza dela Pedro eta uren gainera ibiltzen saiatzen garela. Ondorengo hitzak erabiliz gida dezake otoitza eragileak:

Jesus ur gainean oinez zihoan eta Pedro gauza bera egiten saiatu zen... Baina ikaratu egin zen, hondoratzen hasi zelako eta oihu egin zuen: Jauna, salba nazazu" Jesusek eskua luzatu eta besotik heldu zion.

- *Demagun ur gainean oinez zoazela, Pedroren antzera... Eta sentitu ikara, hondoratzen hasi zarela... Zein beldurrek ikaritzen eta geldiarazten zaitu?*
- *Orduan, Jesus iristen da eta eskua ematen dizu... Eta gogor eusten... Eta uretatik ateratzen zaitu... Zu fida zaitetz, esker oneko izan zaitetz... Zer esan nahi diozu Jesusi? Elkarrizketan jardun berarekin.*